



## Ruben Palaciossek irabazi du XVIII. Insalus Saria

**LIZARTZA** ▶ Seguros Bilbao taldea izan da jaun eta jabe, taldekako, banakako eta mendiko sariek

**ESKUALDEKOAK** ▶ Ibarako Xabier Iriarte seigarren eta Altzoko Aitor Olano hamaseigarren izan dira ▶ 6



Ezker-eskuin: Jabier Etxarri bigarren sailkatua, Ruben Palacios irabazlea eta Beñat Intsausti hirugarrena. NEREA URBIZU

**TOLOSA** ▶

750 urteek emandakoaz gehiago jakiteko

Buletin elektronikoa eta denbora-pasa liburuxka, kalean ▶ 7

**TOLOSA** ▶



TXIXI ORBEGOZO


Nairobotarra busaren 25. urteurrena ospatzeko

Ortiz eta Iztueta hizlari, Amalurren ▶ 3

**IKER GOENAGA** ▶ TRIKITILARIA

«Muga gehiago dituzte musikariek, instrumentuek baino»

Bere hirugarren diskoa 'Amorrua' kaleratu berri du zizurkildarrak ▶ 4-5



ANDER GILLENEA



Tel.: 943 69 29 65  
Larrea auzoa  
20150  
BILLABONA  
(Gipuzkoa)


Jarduera komertzialak  
Garces Basoko altzarietan jarraitzen du



DEKORAZIOA

## KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



## ESANAK ▶

**JONE HERNANDEZ**  
TOLOSAKO UDALEKO  
BERDINTASUN TEKNIKARIA

«Itxuraz, lan munduak kultur, kirol eta jai arloak baino pisu handiagoa dauka gure gizartean, baina jaietan gizarte baten ezaugarri eta balore asko islatzen dira, eta horrek hausnarketa eskatzen du. Aurrerapenak esparru sinbolikoetan izan behar dute batzuetan, beste batzuetan mugitzen hasteko»

«Azken hamarkadetan ahalegin garrantzitsuak izan dira herrian, baina zaila da horiek mugimendu sendoago batean gorputzea»

'Galtzaundi' (2006-03-10)

## GUTUN@K ▶

## Sasi eta lainoen artetik II

Aurreko batean *Argia*-k euskal gatazkaren inguruan iritzi artikulatu bat idaztea eskatu zidan. Halaxe egin ere; idatzi horren ardatza indar politiko espagnolistak ezin dutela bakerako egon daitekeen aukera on bat galtzea zuen. Bere burua ezker abertzaleko, *alimaña ilegal*, definitzen duen batek artikulua kritikatu zuen. Testuinguru osoa kontutuan hartuz argi dago nire ustetan ez dagoela ez gezurrik ez inori mina egiteko asmorik. Dena den, irakurri eta zuena da hitza.

«Ez dakit 23F-ren itzala luze-egia delako den. Baina orduko hordago kutrearen zilarrezko ezteiak ospatzera datozela batzuk, dirudi. Aurrenekoa, Tejero bera Melillako periodiko batetan Espainiako unitatearen

aldeko soflama berriak (?) oihukatzen. Eta harekin batera konpainia guztia: Bono eta Mena, nor baino nor, Penintsulako batasuna jokoan. BEC: Bertso eta Basket jaia bai, baina Batasunarena ez. *Egunkaria*-ren auzia berriro bueltan, eta 18/98 bi mende luzetan. Ibarra sutan, Kataluniako Estatut-arekin; eta Pique, akaso, kokolan. Losantos jo ta ke, ezin ikusiz Z. P. Aznar, FAESetik sua, bero-bero Espainia osoa. Acebes eta Zaplana, Euskadirekin nahikoa lana. Ermuako Foroa Iruñera doa, sobran daudela foruak esatera... Eta guztietan, *hoberena*: intelektual-pentsadore talde batek Fundación para la Defensa de la Nación Española osatu du, baina ezin izan dute erregistratu, hain zuzen, helburu horiek Ejertzitoarenak direlako, berdin-berdinak. Negar egin beharrean hobe barre txiki bat, ezta?

Auzitegiak eta auziak, Estatu hautesia, Estatut-aren kontra referenduma, Tejero lehen sinatzailea, COPEtik kea eta sinadura bilketa, zeruan lainoa. Gure artean sasia, beldurra, debekua, intolerantzia, Euskadi eta Katalunia deabrua, eta laster Galizia. Dena dirudi sasia eta lainoa, inoiz baino zabalduagoa. Zer gertatzen ote da? Zer berri? Zergatik hainbeste istilu? Zertara urduritatu zuten hau?

Hiru urte hildakorik gabe. Hau bakea! Hau bakerako aukera. Eta hau hainbesterentzat ardura. Arazoa oso argia da, egoera berri posible horretan, hainbestetan entzun dugun esaldia etorriko zaie bueltan: «Helburu guztiak bake giroan aurkeztu eta lortu daitezke politikaren bidetik». Egun handi, egun santu hori orain ezagutzeko bidean gaudenean, haral! Alarma gorria! Gure artean sa-

siak eriten: Bono, Mena, Rajoy eta konpainia. Eta zeruan laino beltzak: Ibarra, Guerra, Aznar eta bere konstituzio lagunak. Hau da hau egoera! Baina benetako momentua iritsi da, galderari erantzuteko momentu historikoa: ahal da edo ezin da? Planteatu eta lortu daiteke dena politikaren bidetik? Egia da?

Demokraziaren *erakustaldi* bat egiteko aukera dator, baina argi dago Ebro ibaitik behera ez daudela prest, ez daudela prestatuta. Katalunian eduki dugu adibidea. Parlamentuaren eskariari emandako erantzuna: boikota! Komunikabide alderdi politiko eta intelektual talde bat osatu, *Espainiako* bandera hartu eta akabo kontuak. Denok aho batez: Katalunia Estatut berri bat eskatzeko libre da, baina eskari horren ondorioak ezagutu beharko dituzte, eta ezagutu dituzte, bai.

Eta orain guri, hemen, tokatzen zaigu aurrerapausoak ematea, eskari berri bat planteatzea, eszenatoki berri batera euskal gizartearen ematea, harreman modu desberdin eta berri bat proposatzea. Eta horretarako guztirako, akaso, ona da altura pixka bat hartzea, mendira lasai igotzea eta eman beharreko pausoak ondo hausnartzea.

Hala, Anbotoko Mariren kobazulotik iritien zarenan, ezin zaio Mariri sorbalda eman. Kontuz, poliki eta Mariri so irten behar da. Hemen ere berdín, kontuz eta poliki irten behar gara, atzeraka itxurran, baina aurrera jotzen. Atzeraka begira, baina aurreratzen, eta batez ere, sasi guztien gaintetik eta laino guztien azpitik, hor baitugu gure lekua».

JOKIN BILDARRAZ  
(TOLOSAKO ALKATEA) ▶ TOLOS

## iragarki laburrak ▶

## LANPOSTUAK

**Suhiltzaileak**, Ertzaintza, polizia. 2006ean lanpostu berriak. Informazioa: 943 313782.  
**Administrari laguntzaileak**. Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil,

Mendaro, Anoeta. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 313782.  
**Garbitzaileak**. Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782

**Gidariak**. Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 313782.  
**Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak**. Postu libreak Eusko Jaurilaritzan. Asteburuetan

libre. 943 313782.  
**Peoiak, langileak**. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan. 943 313782.  
**Aireportuak**. Bete behar dituzte:

harreragileak, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak eta mantentze-lanerako langileak. Informazioa: 943 313782.  
**Harreragileak**. Telefonistak, hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. 943 313782.

UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

‘Por qué lo llamarán amor?’



**B**adirudi, lehen bistazoan, ez dagoela desberdintasun handiegirik esatearen eta adieraztearen artean. Norbaiti x adierazi nahi badiogu, x esango diogu eta kito; hau da, norbaiti elurra ari duela jakinarazi nahi badio-

gu, elurra ari du esango diogu, besterik gabe. Esan, adierazi edo komunikatu, dirudenez ez dago desberdintasunik horien artean —eta badirudi halako pitokeriez aritzea ez dela denbora galtzea besterik—. Baina bada Hizkuntzaren Filosofia alor bat, Pragmatika, esatea eta adieraztea bereizten dituena; izatez ez baitira gauza bera: zerbait esan dezaiket erabat desberdina den beste zerbait adieraziz. Horra hiru adibide:

Gaua. Esan didatenez, ligatze kontue-tan zer edo zer lortu nahi duenak beha-

rrezko omen du zerbait esan eta beste zerbait adierazten jakitea. Ezagutu dut kaixo esan, eta «zure kuloak nire ohe ondoan nahi ditut gaur» erraz-erraz adierazten duen artistarik —eta are harritzekoagoa dena: badirudi baten batzuek ulertzen dietela—. Hori bai, gehiegi adieraztea askotan ez omen da politika ona...

Politikariak. Pragmatikaren maisuak, inongo dudarik gabe. Hitz bat hartu eta, inor konturatu gabe, hari edozein esan-nahi emateko gai dira. Adibidez, politi-

kari batek terrorista hitza esan dezake «nireak ez diren helburuak lortzeko biontzentzia erabiltzen duena» adierazteko, edota faxista «kabroi alua» adierazteko. Kasurik argiena: politikariek demokrata hitza erabiltzen dute «gu» adierazteko. Ay... *Por qué lo llamarán amor cuando quieren decir sexo?* —eta ez, ez naz paragrafoz nahastu—.

Artikuluak. Beno, hauek akaso Pragmatikaren porrota dira. Gauza normala baita, zerbait ttikia adierazten saiatu eta, azkenean, ezer ere ez esatea; zerbait esan baina ezer ez adieraztea. Eta bel-dur naz, Pragmatika eta Hizkuntzaren Filosofia asko ikasiagatik, hori ez duten inongo fakultatetan irakasten...

TOLOSA ▶ GIZARTEA

JOXEMI SAIZAR

**A**laitasuna zuen motorra eta gidariak Marco Poloren ordeko eta irudi. Hala definitu zituen Anjelmari Peñagarrikanok idatzitako bertsoetan. Tuareg eta boskimanorik ez zen Usabal sagardotegian, bai ordea munduak zehar haiek ezagututako lagun asko.

Bidaiazteko estilo desberdina —tolosar era deitzen diote batzuk— sortu zuten Nairobitarra autobuseko *bezero* eta lagun ugari bildu zen asteazkenean Josu Iztueta eta Angel Ortizen inguruan, lehendabizi Kultur Etxean, Amalur jardunaldien barruan, eta ondoren sagardotegi batean afaltzen.

Proiektzioan Iztuetari eta Ortizi egindako galderekin bideoa, Nairobira egindako lehen bidairan irudiak eta Manuel Mokoroaren kontakizuna, bi protagonista nagusien aurrekariak bidaia, lan eta kirol munduan, eta Nairobittarraren egindako bidaien laburpena ikus ahal izan zuten Kultur Etxeko areto nagusira sartzea lortu zutenek —jende askok kanpoan gelditu behar izan baitzuen—. Garaiak aldatu diren seinale, irla huts batera Iztuetak telefono mugikorra eta Ortizek itzulerako biletea eramango zutela azaldu zuten bideoan. Solasaldian 25 urtetan



Nairobittarraren lagunak kantari sagardotegian, tartean Angel Ortiz eta Josu Iztueta gidariak. TXITXI ORBEGOZO

Nairobittarraren tribukoak

Amalur jardunaldietako saioa aprobeztatuz, bidaiari izandako lagun asko elkartu zen Angel Ortiz eta Josu Iztuetarekin

zehar 100 bidaitan egindako milioi bat kilometroetako bizi-pen nagusienak, jendearekin izandako harremanak, une latz eta gozoenak laburbiltzen saiatu ziren Iztueta eta Ortiz. Esperientzia liburu batean jasotzeko zailtasuna aipatu zuten galdera bati erantzunez

Eta ondorengo afarian elkar-tu ziren 84 lagunak, bidaia horietan autobus zaharreen garai desberdinetan zehar ibili diren bi mila lagunengandikozkariak izan ziren, gertuen bizi direnak, baina baita Nafarroa eta Bizkaitik etorritakoak ere, aste gorria izan arren. Autobusean erabiltzen ziren bezalako potobana oparitu zitzaizkien bildutako afariaren hasieran oroi-garri gisa, eta afarian zehar milaka kontu eta pasadizo berrit-zeko parada izan zuten. Asmo berriak azaltzeko okasioa ere izan zen. Kantu, bertso eta musikarako tarte ere ez zen falta izan.

Lehen autobusa Nairobiri gelditu zen, hango gobernuak erositako futbol talde batentzat. Bigarrena, Txilen haur umezurtekin lan egiten duen zentro batean eta martxan jarraitzen du. Hirugarrena, berriz, txatartegian bukatu zuen. Hala ere, bidaiazteko —eta bizitzeko, azken finean— izpiritua eta ilusio hori hainbat lagunengan er-naldu eta bizirik dirau.

LEHENENGOAK BEZELAKOAK

DIESELAREN SUKARRA CITRÖËNEN

HOTI TEKNOLOGIA BARRIENA ESKAINTZA EZIN HOBETIKIN

<p>CITRÖËN C1</p> <p>Citroën hiru aldiz 67 garrantzia 8.080 €<sup>IVA</sup></p>	<p>CITRÖËN C2 HDI</p> <p>2.500 €<sup>IVA</sup></p> <p>Citroën hiru aldiz 67 garrantzia 8.320 €<sup>IVA</sup></p>	<p>CITRÖËN C3 HDI</p> <p>2.500 €<sup>IVA</sup></p> <p>Citroën hiru aldiz 67 garrantzia 8.030 €<sup>IVA</sup></p>	<p>CITRÖËN C4 HDI</p> <p>3.000 €<sup>IVA</sup></p> <p>Citroën hiru aldiz 67 garrantzia 11.830 €<sup>IVA</sup></p>	<p>CITRÖËN C5 HDI</p> <p>4.000 €<sup>IVA</sup></p> <p>Citroën hiru aldiz 67 garrantzia 17.320 €<sup>IVA</sup></p>	<p>FIAT PICASSO</p> <p>4.550 €<sup>IVA</sup></p> <p>Citroën hiru aldiz 67 garrantzia 13.000 €<sup>IVA</sup></p>
---	--	--	---	---	---

SAIOEN EGOKITASUN HILABETE BUKAERARARTE

SAIOEN HIRUKA IROVI, S.A. Citroën Konzesionario Ofiziala • Industrialea s/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

CITRÖËN

IKER GOENAGA ▶ TRIKILTILARIA



# «Instrumentuak baina, muga gehiago dituzte musikariek»

Iker Goenaga zizurkildarrak 'Amorrúa' diskoa argitaratu berri du, bakarka egiten duen hirugarrena, «inoiz baino intentsitate gehiagoarekin» burutua

IMANOL GARCIA

Atera berri duen diskoaren promozioan buru-belarri dabil Iker Goenaga (Zizurkil, 1974). Amorrúa izena jarri dio, eta bakarka ateratzen duen hirugarrena da Egun Aiztondo izen da musikaria, baserri batean. Trikitixa sinor molestatu gabeko jo diziole bertan, eta taldekoekin entseguak egiteko ere baliatu izan du. Beñat Barandiaran (gitarra akustikoa), Iban Gurrutxaga (gitarra elektriko), Mikel Ateaga (baxua) eta Irigo Egin (perkusioa) izan ditu ondoan grabaketan, eta zuzeneko emanaldietan ere haiek osatuko dute taldea.

**Bakarkako hirugarren diskoa atera berri duzu.** Lehengoa 1993. urtean atera nuen. Larrazte arebarekin. Maixa eta Itziar bikotearekin banatu genuen diskoa. Rock musikan disko bantatuak egiten baziren ere, trikitixarekin ez zen onikoa hori. Hasieran hori izan zen, eta asko ikasi nuen, mundu bat deskubritzen hasi nintzen. Gero, bakarka, Solmu-gorri eta Paluzieretarekin izan, eta orain, hirugarrena, Amorrúa.

**Zure instrumentua trikitixa izanik, zailagoa al da diskoak ateratzea?** Instrumentu bakoitzak bere mugak ditu, baina hori ez da arazoa. Musikariak izaten dituzte bere mugak, eta horiek ezagutu behar dira. Askotan muga gehiago ditu musikariak berak instrumentuak baino. Nik trikitixarekin lotura berezia dut beldanik. Zortzi urterekin hasi nintzen, eta 13-14 urterekin lehenengo kantuak asmatzen hasi nintzen eta Kortaturen Sarri-Sarri bezalako abestiak jotzen.

**Nola izan da Amorrúa-ren sormen lana?** Musika guztiak ez dute ber-

din funtzionatzen diskoak egiterakoan. Diskoa grabatu aurretik, bederatz hilaite egon naiz ezer sortu gabe, grabatu beharreko abestiak lantzen. Abenduaren amaieran grabatu nuen, eta ordutik lau kanturatu ditut. Noiz jakin hurrengo diskoa noiz aterako den. Lehenengo diskoetik bigarrenengora hosi urte igaro dira, eta hori hirugarrenengora beste hiru urte. Tartean Mikel Laboarekin eta Sorotan Beñe taldean aritu nintzen jotzen. Bakoitzak bere momentua bilatu behar du diskoak ateratzeko.

**Etia grabazioa nola joan da?** Abestiak talde-lanean jotzatu ditugu eta denon artean kolore bat ematen joan gara. Zirkulu modukoa bat sortzen da talde-lanean inertziaz eta hori apurtzeko Anjel Unzuak egiten duen lana aspatzeko da. Produzkoan aritu da eta bere ikuspegia eman die kantuei, errespetuarekin ideiak emanez. Bion artean ematen gurentzen kantuak eta gero taldera itzultzen nintzen aterako ideiek, eta

## ZENBAT DATU ▶

**'AMORRUA' DISKOA**  
**Abestiak.** 14 komposizio ditu. Horietatik 8 dira abestuta, eta gainontzeko bak instrumentala.  
**Kolaborazioak.** Josu Salbide, Xabier Zebeno, Aialte Tellebea, Mikel Markez, Joseba Tapia, Koldo Izagire, Garbol Unsaín eta Joseba Sarrionandia.



IKER GOENAGA

**KONZERTUAK**  
 Etsualdeko emanaldiak:  
**Tolosa.** Bonberenea; apirilak 8, 22-30ean.  
**Zizurkil.** Auzolongo kultur etxea; maiatzak 13.  
**Villabona.** Olaederra kirologia; maiatzak 27.  
 Jesusen Bihotza Ilikiolaren 40. urteurreneko festan.

kantuak berrikusten genituen. Oso prozesu intentsioa izan da. **Emaltzarekin gustura?** Bai, gustura. Bai testuaren aldetik, baita musikaren aldetik ere. Bi arloetan izandako kolaboratzaileek ere asko lagundu dute. Esfortzu handia da diskoa grabatzea, eta lagunetz inguruta errazago izaten da. **Izenburua berezia ipini diozu egindako udortu hori.** Amorrúa hitzak hiru gusua ere adierazten ditu. Hasterrearen sinonimotzat ez dut behin ere erabili, gausa bat inentzitatez gertea, gogoz gertea esteko

batzik. Eta hori adierazi nahi nuen izenburuarekin; produzioan inoiz baino gehiago delegeatu badut ere, inoiz baino intentsitate gehiagoarekin egiten dut lan. Neure burua gehiago behartu dut gauzak hobeto egiteko. **Diskoaren aurkezpen kontzertuak egiten ari zara orain, eta jatorrian ere emango duzu bat.** Aurreko diskoarekin ere izan ginen. Sentsazio berezia da, publiko guztiarekin biltzen zuzen. Ezanatik bigarrena eta denak ezagunak. Eskertzekoa

da musikari batentzat bere herriari kontzertua emateko aukera izatea. **Zer espero behar du kontzertu josten denak?** Diskoaren abesti gehienak entzuteko aukera izango du, eta aurreko diskoetakoak ere bai. Berrikuntza bat ere izango dugu, seigarren ikide bat izango baita ere zuzenekoan, ordez nagailua. Kontzertu politikak izango dira, eta jendea animatzen dut etortzea. **Osozkoekin partaide bezala egiten dituzan kontzertuak eberdinak izango dira...**

Batean eta bestean dituzan ardurak dira ezberdintasunak, batean ere Nire taldearekin nik egiten ditut aurkezpenak eta nik abesten dut, beste presentzia bat izaten dut eszenatik gainera. Osozko zortzi lagun gara, eta horrek guztiak behar duen koordinazioak eta emandako kontzertu pilak asko lagundu diti eszenatik gainera eskarmenak lortzeko. **Nola ikusten duzu trikitixaren egoera?** Oure-egungo lengoia eta La-jak bere momentuan zuzen ezberdinak dira. Oram 100 urte etorri zen trikitixa Euskal Herri-ara, eta orduan albotaren, txistuaren, xirularen errepertorioa hartu zuten. Bere funtzio soziala dantza egiteko izan da, eta horretara loturik egon da. Nik eritimo tradizionalak erabiltzen ditut onarri bezala diskoetan. Baina erromeria gain-behera dago, taldeak desagertzen ari dira. Musikari eta trikitixa ikasle bakoitzak ikusi behar du zer egin nahi duen, nondik eraman nahi duen.

**lorategi zorritzaileak**

- ◆ Discinuak
- ◆ Ereintzak
- ◆ Landteak
- ◆ Ureztatz sistemak
- ◆ Mantentimenduak

Tel.: 948 310 287 - 667 848 832

**Konparaketa egin**

Erabiltzaile bakoitzak bere konparaketa eta iradialdeak

Costa del Sol	Salou
155	130
Madrid	Paris
285	269

**EROSKI** bidaiak

**Deustuko Unibertsitatea Tolosan**

**Etor zaitez gu ezagutera**

ESTE-ESIDE, Titulazio Bikoitza: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Lizenziatura eta Kudeaketako Informatikako Ingeniaritza Teknikoa (6 urte)

ESTE, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Lizenziatura (5 urte)

Espezialitateko Masterra

Giza Zientzietako Lizenziatura: Komunikazioa, HUCO (4 urte)

Giza Zientzietako Lizenziatura: Enpresa, HUEM (4 urte)

Iturismoko Diplomatura (3 urte)

Gizarte Laneko Diplomatura (3 urte)

**Informazio saioa (Mesedez baieztatuz)**

Egunean: MARTXOAK 22, asteazkena

Ordua: Antonio M. Labaien KULTUR ETXEA, FORUM Plaza, TOLOSA

Ordua: 19etatik-20etara.

943 326 308 - 943 326 600

e-mail: info@odn.deust.eu.es

www.infodonostia.deust.eu.es

**txokoa** lagunen

**Egin zaitez harpidedun!**

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon** SINGULARIAK  
 Gauri indoa, 1 • TOLOSA  
 Tel.: 943 65 04 62

**MUGAR** ROCK GUITAR  
 Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
 Tel.: 943 63 56 93

**LIZARRIBAR** ONETRIKIOAK  
 Auzo Itzazu Plaza  
 TOLOSA

**ILUMINAZIOA**

**ROCKKIN**

**ROCKKIN**

Tolosa, 21 • Tolosa  
 Tel.: 943 67 22 44

Rondilla, 11  
 TOLOSA  
 Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta leizaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak aser

LIZARTZA ▶ XVIII. INSALUS SARIA TXIRRINDULARITZA PROBA

# Seguros Bilbao izan da jaun eta jabe Lizartzako lasterketan

Hiru euskaldun izan dira irabazleak, bai banakakoan eta baita talde bezala ere; Ibarako Xabier Iriarte 6. eta Altzoko Aitor Olano 16., eskualdeko azkarrenak



Seguros Bilbao taldeko hiru irabazleak elkarrekin helmugaratu ziren. NEREA URBIZU



Leaburuko igoera borrokatua izan zen, talde sendoenen artean. n. u.

## NEREA URBIZU

Otsabio Elkarrekin antolatzen duen Lizartzako XVIII. Insalus Saria burutu zen atzokoan. Bertan Seguros Bilbao taldeko Ruben Palacios izan zen garaila. Halaber, azpimarratzekoa da talde honen sendotasuna eta garrantzia, lasterketako lehenengo 3 postuak haiek lortu baizituzten; Jabier Etxarri lekunberriarra bigarren postuan eta Beñat Intxausti amorebietarra hirugarrenean. Hirurak, Lizartzako helmugara elkarrekin iritsi ziren, eskutik helduta. Eskualdeko lehenak, berriz, Xabier Iriarte ibartarra, seigarren postuan, eta Aitor Olano altzotarra, hamaseigarrenean.

Lehenengo kilometroetan 9 txirrindulari ibili ziren ihesi, horien artean iaz bigarren postuan amaitu zuen Francisco Jabier Aramendia (Caja Rural).

## SAILKAPENA ▶

### XVIII. INSALUS SARIA

Sailkapen orokorra.

1. Ruben Palacios
2. Jabier Etxarri
3. Francisco Jabier Intxausti

6. Xabier Iriarte (Ibarra)

16. Aitor Olano (Alzo)

Mendiko Saria.

Beñat Intxausti

Taldeko Saria.

Seguros Bilbao

Seguros Bilbao lanean hasieratik ere, izan ere, Intxaustik, Altzoko bi igoerak egin zituen lehenengo postuan, horrek mendiko saria lortzea eman ziolarik. Leaburuko igoera gogorrean helmugara iritsi ziren lehenengo hirurak ziren, jada, lanean. Eta helmugara arte mantentzen jakin izan zuten.

Haize petralaren kontra ibili behar izan ziren txirrindulariak. Hala eta guztiz ere jende andana gerturatu zen lasterkariari arnasa ematera eta probaz gozatzerara.

### Insalus Sariaren garrantzia

Agutegi lehen probetako bat da Insalus Saria, eta gogortasunagatik eta afizionatu mailako talderik eta txirrindularirik onenak joaten dira Lizartzara. Horregatik, gero eta ezagunago egiten ari da lasterketa hau.

Proba hau irabazi duten askok eta askok profesional mailan ibiltzea lortu dute. Hala nola, iazko txapelduna, Jose Joaquín Rojas (Liberty), Mikel Astarloza (Agr 2), Samuel Sanchez (Euskaltel) eta Jonathan Gonzalez (Ilers Balears).

## AZOKA ▶

### Udaberria badatorrela nabari da azokan

Lehenengo geranioak eta kalendulak erosteko aukera izan zen atzokoan

#### PABLO ALBERDI

Aste honetan izan dugun eguraldi onak oso eragin baikorra izan du produktuen eskaintzan. Nahiz eta berri-tasun handirik oraindik ez izan, eritimo honetan, datozen asteetan izando dira, eta gainera, babak edo ilarrak, besteen artean, goraka dihoazte.

Berdura plazan aurtengo lehenengo geranioak eta kalendulak ikusi genituen atzo, 2 eurotan salduak. Datorren asteetan, ziur aski, produktu berri gehiago aurkeztuko dira. Bestalde, gazta zerrenda ere zabala eta osoa izaten ari da egun hauetan, eta hauen gain, irasagarria edota ogia eta postreak ere aurki daitezke.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Pensamientoa	1,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Antirinoa	1,00	-
Txilarra	3,00	4,30
Perrejila	0,05	0,06

<b>Bertako produktuak</b>		
Urza	2,00	-
Kalabaza	1,50	3,00
Azalorea	1,00	-
Arraultzea	1,30	2,10

<b>Produktu ekologikoak</b>		
Tipula	1,75	2,00
Baraburia	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Sagarra	2,00	3,00
Mermelada	3,00	3,60

## urteurrenak ▶

### VII. urteurrena Joxelu Geresta Totto

Gure artekin eraman zintuzten Euskal Herria maitatzeagatik gerra zikina egin zutenek zure jarduna ixildu nahirik baina ez da sortuko etsairik gure askatasuna lotuko duenik zauden lekuan zaudela, borrokan jarraituko dugu elkarturik. Jo ta ke, irabazi arte!

ZIZURKIL, 2006eko martxoaren 19a



## hilberria ▶



### Juan Mari Zulaika Azpeitia

Zer nolako zaila den agurtzea baina zein ederra izan den zu ezagutzea.

Ilobak: Nagore, Jon, Ane, Ana eta Kaspi

ZARAUTZ, 2006ko martxoaren 19a



▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guzfitan prezio berregatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

TOLOSA ▶

**2004-2005eko DBHko tituluak jasotzeko aukera**

2004-2005 ikasturtean, Las-korain ikastolan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu zuten ikasleak, Usabalgo ikastolako idazkaritzatik pasa daitezke, DBHko beraien titulua jasotzera, jakite-ra eman dutenez.

TOLOSA ▶

**Ikastaro berria Goi mailako institutuan**

Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak jakinarazi du astelehenean, hilaren 20an, CNC Torno Eragiketa eta kalitatearen kudeaketa ikastaroak hasiko direla, doan izanik. Izen-ematea ikastetxean bertan edo 943 65 11 47 telefono zenbakira hots eginez egin ahal izango da. Hobetuz eta Europako Fondo Sozialak diruz lagunduko dute ikastaroa.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroško dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

BERASTEGI ▶ GAZTE FESTAK

ESTI EZEIZA

Laiotz trikiti taldearen musika-ekin amaitu ziren, atzo, Berastegiko Gazte Festak. Ostiralean hasi zituzten jaiak Herri afariarekin, eta 120 lagun inguruk hartu zuten parte bertan. Afalondoa alaitzeko berriz, DJ Bull aritu zen abestirik dantzagarrienak jartzen. «Giro polita, eta herrikoia» izan zela adierazi zuten Urepel gazte elkarte-koek.

Atzo, arratsaldeko lehen orduetarako hasi zen berritua festa Berastegin. 16:00ak aldera herriko hainbat gazte bildu ziren Urepel gazte elkartearen, Mus Txapelketako finala jokatzen, nahiz ikustera. Herritar guztiei zabaldu zitzaizkien lehian parte hartzeko deia, eta hasiera batean, gazte, nahiz zahar, neska zein mutil hasi baziren ere jokatzen, finalurreko-eta mutil gazteak bakarrik ailegatu ziren. Azkenean, lau bikoteak eskuratu zituzten sariak; Irabazleak Iñigo Atxukarro eta Ioseba Agirrezabala izan ziren, eta txuleta eta arku-me erdi bana eraman zuten etxera. Bigarren postuan berri- z, txuleta banarekin, eta bina ardo botilekin, Andoni Saizar eta Xabier Salazar geratu ziren.

Mus Txapelketa amaitu ostean, jende andana hurbildu zen sagardo dastaketarako, eta segidan, bertso saioa izan zen: Jon Maia, Angel Mari Peñagari- kano, Jexux Mari Irazu eta Iker Zubeldiarekin. Gai jartzaile lanetan Iñigo Gorostazu aritu zen. Eta jaiak amaitzeko, dantza saioa Laiotzen eskutik.

**Laiotzen trikitiarekin amaiera eman diete aurtengo Gazte Festei**

«Giro alai eta herrikoia» izan da nagusi asteburu honetan, Urepel gazte elkarteak antolatzen dituen jaietan



Mus Txapelketako finalurrekoak jokatzen, atzo Urepel gazte elkartearen. ESTI EZEIZA

TOLOSA ▶ GIZARTEA

ERREDAKZIOA

Tolosa 750. Urteurrena fundazioak, urteurrena dela eta, hainbat ekimen jarri ditu martxan, herria hobeto ezagutzeko xedearekin. Batetik, *Tolosaldea, 750 urte jolasean* Tolosaldeari buruzko denborapasan liburuxka argitaratu dute. Liburua Lasarte-Tolosako Berritzegunearen bidez banatuko zaie Tolosaldeko ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleei, martxoan zehar. Tolosa eta inguruak hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen du, jolasen eta denborapasan bidez, ohiko bide akademiko eta formaletatik lantzen denaren osagarri.

Bestalde, iazko udazkenaz geroztik martxan da Tolosako albiste buletin elektronikoa, herriari buruzko berri guztiak biltzeko helburuz sortua. Berriak euskaraz nahiz gaztela-

**750. urteurrena dela eta, Denborapasa liburuxka eta buletin elektronikoa**

Tolosa 750. urteurrena fundazioak abiarazi ditu, «herria ezagutzeko»

niaz argitaratzen dira, astelehenean eta ostiralean. Informazioa Internet bidez zabalduko denez, «baliabide horretara egokituta dago buletina»: albiste laburrak emango ditu, erraz irakurtzekoak, eta gai askori buruzkoak: administrazioa, garraioa, irakaskuntza, ingurumena, kultura, osasuna, kirolak, hedabideak...

Buletin honen harpidetza on-line egin daitekeela jakinarazi dute, web orrian bertan, eta baita posta elektronikoko honako helbide honetara mezu bidaliz ere: 750@tolosakoudala.net.

iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Etxeko lanak.** Alegian neska bat behar da etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu 943 65 30 34ra.  
**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmetuna duena.

**ESKARIAK**

**Pisua.** Pisu edo apartamendu bila nabil, alokairuan, leihoak iparralderantz dituen. 678 25 05 66.

**ALOKERAN**

**Garajea.** Garaje ibxia alokatzen da Iruran. Interesatuak deitu 646 48 76 01era.

**SALGAI**

**Furgoneta.** Furgoneta salgai W-Kalifornia; 5 TDI, 2002koa. Oso egoera onean. Deitu 626 73 73 77ra.  
**Pisua.** Leitzaan, 100 m2-ko pisua salgai, igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. 699 46 13 65ra.

